

tüpi-ttapa

1994.ko urtarrilak 6 • 125. zenbakia

**Elkarrizketa
Xanti Errandonea**

**Kirola
Marka ugari
Donezteben**

**KARRIKAKO SALTZAILEAK:
BERTAKOEN BURUKOMINA**



94ko harpidetza sariak

Garaiak agintzen duen modura, **ttipi-ttapa**ren informazio eremutik kanpoko harpidedunentzat 94rako harpidetzak gaurkotzeko tenorea ganean dago. Hona hemen urte osorako harpidetza sarien zenbatekoak:

HEGO EUSKAL HERRIA ETA ESTATU ESPAINOLEAN	1.500 Pta.
IPAR EUSKAL HERRIA ETA EUROPAN	2.500 Pta.
AMERIKAN ETA ASIAN	7.500 Pta.

eta oraindik ez bazara harpidedun, bete txartela eta bidali

NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

Izen Deiturak

.....

Telefonoa

Helbidea

Heria eta Posta Kodea

Banku edo Aurrezki Kutxa

Sukurtsala

Kontuaren zenbaki osoa

Kontuaren titularra

Diru kobraketak urtarilan berriztatuko dira beti

ttipi-ttapa, Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA


ttipi-ttapa

Orain

**publizitatea
koloretan**

zuri beltzekoaren
prezioan

Deitu tamainak
eta prezioak
kontsultatzeko

 631188

DATUAK

❖ Azken sei urteotan Sarako Zulubian bizi da, sortzez Berako Alkebeherekoa bada ere.

❖ Ogibidearen zatirik garrantzitsuena negutegian barazkiak produzituz ateratzen du.

❖ Barazkien kalitateari atentzio berezia ematen dio.

❖ Produzizio osoa Baiona aldean saltzen du.

❖ Trankilago aritzeko gutienez 4.000m² tunel behar dira bere ustez.

❖ Sarako laborariek duten lan usadioagatik ez du uste negutegien lanera aisa jokatuko direnik.

Xanti ERRANDONEA:

«Barazkien produkzioan arras defizitarioak gara hemen»

DIFERENTZIA HAUNDIA SOMATU DUZU BERAKO BIZIMODUTIK SARAOKA?

Bai, bada, eta duela 5 urte oraindik gehiago. Saran baserritik bizi dena hartara deikatzen da eta ez bertze gauzetara. Bera eta Lesaka aldean, berriz, aunitz dira bi enplegu dutenak, lan-tegi haundietan lan egiteaz gain baserrian ere aritzen dira. Horrek desberdintasunak sortzen ditu bizimoduan, bistan da.

SARAN ZUEK BAKARRIK DITUZUE NEGUTEGIAK. ZER DA PRODUZITZEN DUZUENA?

Egia da. Senperen, Azkainen... bada negutegiak dituztenak bainan Saran bakarrak gara. Gehienbatean lau gauza produzitzen dugu; udan tomatea, piperra eta pepinoa eta negualdean letxuga.

DENETARA ZENBATEKO EREMUA DUZUE ESTALIA?

Tapaturik 2.000 m². Momentuz salbide ona dagoenez eremu hori nahikoa da, bainan trankilago aritzeko bertze hainbertze ere



beharko lirateke estali.

ZERTAN DAGO NEGUTEGIEN KONTUA IPARRALDEAN?

Duela 6 urte izan zen halako azkartzea. Orduan eman zuten martxan kooperatiba eta produkzioa ere haunditu egin zen.

Halere, handik denbora gutira kooperatiba itxi egin zen eta jendea bere kontura hasi zen saltzen. Ekonomikoki ez zen esperientzia ona izan bainan baliagarria izan zen kalitateaz jakin behar zena ikasteko.

NON SALTZEN DITUZUE BARAZKIAK?

Hemen bertan, Baiona aldean. Barazkien produkzioari dagokionez defizitarioak gara, Bordeletik eta heldu dira hemen saltzera. Hor dago, beharbada, kooperatiban

ez martxatzeko arrazoi bat, produktoreok badugu zuzenean saltzerik bitartekorik erabili gabenik.

BERTAKO LABORARIAK ZERGATIK EZ DIRA HONETAN JOKATZEN?

Lana bertze modura egitera usatua dago Sarako laboraria, esku-lan gutiago eginez eta mekanizazio gehiagorekin. Produkzio kopuru hauegan, lan honek mekanizazio limitatua du arras, material ttikira batez ere.

» «Bertako kontsumoa hornitzeko, behar dena baino gutiago produzitzen da bertan. Hortaz, barazki produktoreok badugu komertziotara zuzenean saltzerik, lan horretan bitartekaririk erabili gabe»

KARRIKAKO SALTZAILEAK ETA HIRIETAKO SUPERMERKATU HAUNDIAK BERTAKO DENDARIEN ETSAI



Azken egunotan, urtero bezalaxe, hobekiago saldu arren haserre dabilta gure herrietako dendariak. Arrazoia: kanpotik datozen karrikako saltzaileek sortzen dizkieten kalteak. Zenbait herritan bilerak egin dituzte komertziantek eta Donezteben, adibidez, udal ordenantza onartu berri da, herritik herrira dabiltzan saltzaile horiek ahal den neurrian kontrolatzeko. Norbaitek hau salmenta askatasunaren kontra doaiela erraten ahal du, baina gure merkatariek diotenez eurek zerga aunitz ordaindu behar dituzte eta honek eragina du prezioetan. Kanpotik etorritakoek berriz, postua paratu, normalki merkeago saldu eta alde egiten omen dute, herriarentzat ia dirurik utzi gabe.

TESTUA

AITOR AROZENA

ARGAZKIA

KARMELE TOLOSA

bertako zenbait merkatariren ustez kompetentzia ikaragarria eragiten dute karrikako saltzaile hauek. Doneztebeko Taberna etxeko Virtudes Etxebestek erran digunez "kompetentzia beharrezkoa da, baina guztiok eskubide

eta betebeharrak berdinekin eginez gero, noski, denok bizi behar baitugu". Lesakako Txirula loredendako Raket Migeltorenaren ustez ere, kanpokoen eragina haundia da: "Guretzat Santu Guzien eguna ostatu-

tzat Sanferminak bezala da eta lore produktoreak zuzenean saltzen badu, ezin izanen dugu inoiz berarekin konpetitu". Ambulanteek berriz "ez dute guk adina zerga ordaintzen eta produktua txarra suertatuz gero

ez daude inon erreklamatzeko. Eta jendea xelebrea da; prezio merkeagoan kalitate berdina nahi du” dio Virtudesek. Elizondoko Bai-Ona supermerkatuko Jon Mikel Arraztoak ez du horrenbertze nabaritu kanpoko enragina, baina “*eman, deus ez dute ematen, baka- rrirekendu*”. Gainera, “*guri neurri sanitarioak eskatzen dizkigute eta furgoneta batean hemendik harat doaienak ezin ditu bete*”.

SUPERMERTATU HAUNDIEN ERAGINA

Pryca edo Mamut gisako supermerkatu haundiek ere eragiten dute dendarien salmentetan baina hori nahitana- hiezkua da Taberna etxe-koen erranetan: “*arrain haundiak ttikia janen du beti, eta jendeari gustatzen zaio egunpasa joatea erosketak egiterakoan*”. Txirulako Rakelen ustez ere “*prezio aldetik aumiztan diferentzia haundia dago eta ga- restiaren fama hartzen duzu*”. Arraztoaren ustez, berriz, ez da horrenbertze nabari, batez ere San Fran- cisco bezalako egunetan joaten delakoz jendea Gi- puzkoa edo Iparraldera.

ELKARTZEA SOLUZIOA?

Komertziantek elkartzea oferta berexiak eskeiniz ez dela soluzioa dio Virtudesek: “*kanpoan denak lagun- gara baina diru kontuak aipatzen direnean... Gaine- ra, ez da komeni ere*”. Rakelek ere zaila ikusten du elkartzea, “*bilerak egiteko edo ordutegiak zehazteko*



FERIAK BEZ- LAKO EGUNETAN BERAIEKIN DE- DARA EZIN SA- TUZ EGOT- DIRA BERTAI- ZENBAIT ME- KATARI



▷ “*Konpetentzia beharrezkoa eta osasungarria da, baina guztiak kondizione beretan lan eginez gero*”

Virtudes Etxebeste (Doneztebeko Taberna)

▷ “*Furgoneta batean hemendik harat doaienak ezin ditu guri eskatzen zaizkigun osasun neurriak bete*”

Jon Mikel Arraztoa (Elizondoko Bai-Ona)

riak eta hilaren 12an alka- tearekin bilera izanen dute.

LESAKA, BORTZIRIETAKO FERIA TOKIA

Haseran, karrika salmen- ta erabat debekatzea eska- tzen zuten herriko komer- tziantek, baina Lesakak Bortzirietako feria eskubi- dea izanik, saltzaileek hamabortzean behin etor- tzeko eskubidea omen dute, bertzeala feria eskubidea gal- dukoz zen. Baina Txirulakoek errotan dutenez, “*loresalt- zaileak astean bitan datoz eta frutasaltzaileak berriz, astean hirutan*”.

Ferietan edo Sanfermi- netan saltzaileak etortzea normala ikusten dute, baina azken urteotan gehiegizkoa omen da: “*urte guzian he- men dauden denda batzue- tan ezinezkoa da sartzea eta batzuk zuzenean oporrak hartzen dituzte. Baina ez da guregatik bakarrik, jende guziarentzat hagitz arris- kutsua da horrelako egoera, edozer gertatuz gero ez bai- tago ambulanzia edo kotxea pasatzeko tokirik haibertze postuekin, Nolabait kontrol- latu beharko zen*” ■

gaizki gabiltza, pentsa!”. Momentuz, Bertizko Par- tzuergoan bakarrik bildu dira eskualdeko zenbait merka-

tari modu finko batean.

Halere, Lesakan anbu- lanteen arazoari aurre egite- ko hasi dira biltzen denda-

Donezteben prestatu du- gun udal ordenantzan kar- rrikasaltzaileak erregulatzea eta kondizione batzutan etortzea bilatu dugu. Pro- duktu batzuk saltzeko bai- mena izanen dute eta bertze batzuk ez. Karrikan saltzen dagoenari etiketa, argazkia eta osasun neurri zorrotzak, albaitero batek kontrolatuko dituenak, eskatuko zaizkio.

Lehen bazen ordenantza bat Donezteben baina lau urteotan derogatua zegoen eta inolako kontrolik gabe etortzen ziren.

Ordaintzerako orduan, negozio berdina duen herri- tar batek adinako lizentzia fiskala pagatu beharko du kanpokoak, zenbat egune- tan datorren kontuan hartu- ta, noski.

«PREZIO MER- KEAGOAN KALI- TATE BERDINA NAHI DU EROS- LEAK ETA HORI ZAILA DA»

Bertakoek hai- na ordaindu beharko dute ambulanteek

Miguel San Miguel (Doneztebeko alkatea)

REGISTRO GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 5.700 ALE

REGISTRATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE

HERRIKO ETXeko PLAZA, 1

31780 BERA

TELNOA: 63 11 88

FAXA: 63 12 91

zendaria: Joxemanuel Irigien. **Publizitatea:** Miren Arriola Tolosa. **Erredakzioa:** Miren Arriola Tolosa, Joxemanuel Irigien. **Erredakzio taldea:** Pello Apezetxea, Juainas Paul, Esteban Arozena, Juana Arriola Saizar, Ainhoa Mutuberria, Txema Aldabe, Pello Arozena, Txema Urroz, Daniel Arozena, Ixabel Maia, Josune Arozena, Pablo Mendiburu, Juana Arriola Saizar, Alizia Olalde, Margari Elxenike, Koro Arozena, Mixel Gerendiain, Jacqueline, Marta Iturria, Oskar Arozena, Alberto Sansinena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Joxemanuel Irigien. **Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Joseba Arozena, Josetxo Susperregi.

Agintariek Laguntzaileak: Miren Arriola, Leitza, Goizueta, Areso, Miren Arriola, Urdazubi, Zugarramurdi, Sarako udalak, Bortzirietako Udala, Mankomunitatea, Mankomunitateko Zerbitzu Mankomunitatea.

Agintariek: Gertu.



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Merkealdien garaia komertzioetan

Azkenean txollos alderantzizkoa gertatzen ahal da

Maria Jesus PERURENA
Irakaslea Doneztebeko Eskolan

Seguraski ez naiz izanen merkealdiak gehien aprobetxatzen dituen horietakoa, bainan tira! Arropak eta oinetakoak erosteko, normalean, kanpora jotzen dut; hor barna bueltaxka bat emateko aprobetxatzen baitut borrela. Bertako komertzioetan ere izaten dira merkealdi eskaintzarik, bainan Iruñean eta, komertzio gehiago daude eta hortaz, aukera gehiago saltsa horretan goxatzeko. Bistan denez, aintzinetik pentsatutakoa eta pentsatu ez zenuena ere erosiz etxeratzen zara azkenean. Horretaz ez da inor libratuko, merkealdiak hortarako baitira. Orokorrean baloratuz, gauza interesgarria iruditzen zait, bainan ez ebuneko ebuneari. Espiritu irekiarekin joan behar da gauzen bila. Txollos ez dut uste izaten denik, azkenean gertatzen ahal baita txollos alderantzizkoa izatea. Dena dela saltsa hau jendearen gustotokia izaten da.

Merkealdien luzera zehaztuko duen legea beharrezkoa da

Vicente GAZTELU
Elizondoko Iparla Kiroalak-ekoak

Nere ustez, beharrezkoa da lebenbaileben egitea merkealdiak noiztik noizera luzatzen ahal diren erranen duen legea. Iruñean, errate baterako, abenduaren hasieran basten dira zenbait komertzio merkealdiak eskeintzen. Berriki arte Errege eguna pasatuta basten zen merkealdi sasoi. Legearen bat edo bertze zerbait egin behar litzateke afera hau argituko lukeena. Egia erran nerea nabiko berria dela eta behar bada ez naizela errepresentati- boena, bainan bueno, bila- bete honen erditik aintzine- ra pentsatua dut jartzea merkealdiak, udaberri eta udako gauza berriak aile- gatu bitarte, martxoan edo. Dena den, gutienak badira ere, aspaldixkotik hasiak zaizkit bakarren batzuk ea merkealdiak noiz jarri be- har ditudan galdetzen. Ha- lere, merkealdiaren feno- menoa gure herrietan bai- no indartsuagoa da komer- tzio haundietan eta hiri haundietan.

Aurretik pentsatua daukadana bakarrik erosten dut

M^o Jesus ARIZTIMUÑO
Leitzako etxekoandrea

Arropa eta oinetakoak erosteko aprobetxatzen ditut gehien bat merkealdiak. Normalean Iruña eta Donostia joaten naiz eta noizbehinka Tolosara. Hiritan eskeintza askoz hobeak egin ditzakete, aukera baundiagoa dagoelako, denda askoz gehiago daude. Halere, bere neurrian Leitzan egiten dira eskeintza egokiak baina erosleek kopuruak murrizten ditut. Merkealdietara aurretik zer erosi pentsatuta joaten naiz normalean eta behin baino gehiagotan etorri izan naiz erosi gabe, nik pentsatuta neukana bilatu ez nuelako. Nere ustez produktuen kalitatea bera da, nahiz eta gauza gehiago ekarri dendetara. Ez dut inoiz problemarik izan, batez ere erosterakoan kalitate baldintza guztiak betetzen dituela begiratzen dudalako. Bakoitzaren ekonomiarako ongi etortzen dira eta dendariak ere tenporadako produktoak ateratzen dituzte.

LEGARRA

• PAPERTEGIA • TABAKOAK •
• LIBURUAK • OPARIAK •

ZERBITZU BERRIAK

- ☞ Fax Publikoa
 - ☞ Enkuademazioak
 - ☞ Inprenta lanak • fotokopiak
 - ☞ EGUNKARI hauek SALGAI
- Diario Vasco, Diario de Navarra, Navarra Hoy, El Mundo, As, Deia, Diario 16, Egin, Egunkaria, Marca, El Pais

Legarra 9, © 637030 - LESAKA



muñeca de trapo

GIZONEZKOEN MODA

EMAKUMEZKOEN MODA

BIAK, IRUNgo LUIS MARIANON

BOTA BERTSOA

IRAKURLEAK MINTZO

**Merkealdiak**

Amaia TELLETXEA
Bortzirietako Bertso Eskola
Doinua: Aita izana...

*Egun hauetan iritsi zaigu
urteroko deialdia
esan daiteke jendearentzat
nolabaiteko saria
baina kontuz ibili ezean
bankasartze nabaria
elkar burrukan ibil gaitezke
ez da lehenengo aldia
ondorioa hau izaten da
ta kausa merkealdia.*

*Urtarrileko hilabetean
diru aldetik babesa
baina jendea bibur daiteke
merkealdiaren presa
batzuentzako bete daiteke
urte guziko ametsa
baina burruka hau irabazten
ez da izanen erreza
Ramborentzako Vietnam bezela
guretzat Korte Inglesa.*

**Joseba
Pujanaren alde**

Elizondoko Lanbide Heziketa Institutuko irakasle taldeak, intsumisozitateagatik epaitua izan den Joseba Pujana gure lankidearekin bat egiten dugu. Egoera horrek, bai maila pertsonalean bai maila profesionalean ekar diezazkiokeen ondorioekin ados ez gatzela adieraziz.

ELIZONDOKO L.H.
INSTITUTUKO IRAKASLEAK
(24 SINADURA)

**Olentzero eta
erregeei**

Lehenagoan, lagun baten etxera joan nintzen. Sarreran mahai ttiki berria zegoen. Egokiago mintzatu, ez zen berria mahaia, bai ordea neretzat, ez bait nuen orain arte ikusia. Haritezkoa, ongi landua, nere iduriko polita eta baliotsua. Nondik erosi zuen galdetu nionean, nere usetekabea ez zen ttikia izan.

- Etzaizu aisa gogoratuko nondik ekarri dudan; zabortegian hartu baitut. Hainbertze zikinen artean

zikin zikina zegoen bera ere, noski. Baina etxera ekarri, garbitu, argiziri pixko bat eman eta... ez da hain gaizki gelditu.

Harrituta gelditu nintzen. Egia erran, ordea, ez zen lehenbiziko aldia horrelakorik aditzen nuela. Eta, orduan, olentzero eta errege maiteok, zuetaz oroitzen nintzen. Izan ere, hainbertze neke darabilizue jendeak eskatzen duen gauza pila garraiatzen. Ez litzateke hobe, duguna estimatzen ikasiko bagenu? Halako krisia

dela, hainbertze jendeak behar beharrezkorik ez duela, eta gu, balio duten gauzak botatzen eta behar ez ditugunak erosten. Zergatik joaten ote zaizkigu begiak dendetako edo telebistako eskaparatean ikusten ditugunetara? Zergatik ez dugu estimatzen etxean dugun kutxa zaharra, amatxik egindako ohatzeko estalkia, gurasoengandik hartutako euskara, okindegian erosten dugun ogia, plazakoa iturri zaharra...?

Horregatik, olentzero eta errege maiteok, hara aurtengo nere eskaria: zuen gurdiak gauzaz arindu, eta etxe guzietan eza-gueraz betetako zaku haundi bat utzi dezazuela.

PELLO APEZTREA

**OHARRA:**

*Eritzi ezberdinek
tokia izan dezaten,
ez da komeni
makinez idatzitako
25 lerro baino luzeago
idaztea gutun
hauetan. Idatzi
duenaren izen-
deiturak, telefonoa,
helbidea eta
NAN zenbakia
agertu beharko
dira. Laburtu
beharra izanez
gero, ttipi-ttapak
bere esku izanen
du horretarako
eskubidea.*

**Opel Kadett GSI-16V
salgai**

Haize egokitua, ABS, leiho elektrikoak eta itxiera zentralizatuz hornitua. NA-X. Km. gutti ibilia eta egoera ezin hobean.
☎ 631157 • BERA

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - **BERA**

BERAn

105 m²ko pisua salgai
Legia karrikan
© 631135


ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA

**ETXEGARAI
BIDEO KLUBA**

Telebista eta Bideoak
Antena kolektiboak eta
banakakoak
Konponketa tailerra

Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA



Egunkaria

«Baztan-Bidasoa aldeko etorkizuneko fabrika turismoaren promozioa dela pentsatu behar dugu; bonek lanpostuak sortuko ditu, kerik bota gabe eta soinuazarrrik egin gabe gainera».

Pedro PEREZ URIZ
Bertizko Partzuergoko lehendakaria

«Navarra Hoy» 93-XII-9

«Betizua da Pirinio-tako jatorrizko arraza; egungo behiak baino askoz ere garatuagoak dituzte aurreko aldeak eta ar eta emearen artean desberdintasun handia dago: aintzinako arraza guztiek zituzten ezaugarriak, hain zuzen ere».

Jose Miguel AMEZTOI
Betizu elkarteko partaidea
«Egunkaria» 93-XII-17

◆ Gorritzen zara inoiz?

❖ Ez da errexia ni gorritzea.

◆ Zer ez zenuke sekula eginen?

❖ Ebastea da neretzat pekaturik gogorrena.

◆ Argazkiak, xuri-beltzean ala koloretan?

❖ Gauza bakoitzak bere momentua du.

◆ Zer izanen zinateke argazkilaria ez bazina?

❖ Medikua izatea da nire bokazio frustratua.

◆ Amets bat?

❖ Mundu guzian pakea izatea.

◆ Irakurtzen duzu komunean?

❖ Bai, bainahagitz gutitan.

◆ Zeri diozu beldur?

❖ Neretzat gauzarik beldurgarriena gaixotasun larri bat izatea da.

◆ Zure gorputzetik gehien gustatzen zaizun atala?

❖ Ikusmena, lanbiderako nahitanahiezkua baititut.

◆ Zein opari eginen zenioke ume bati?


❖ Beti ere adinari begiratu behar zaio, baina fantasiazko liburu bat denentzat polita da.

◆ Larunbat gauerako planik onena?

❖ Afari eder bat egin eta deskantsatu.

◆ Zein hiru gauza eraman zenituzke irla batera?

❖ Argazki kamara bat, irri bat eta argazkigintzari buruzko liburu on bat.



Ignacio ZALDUA

Elizondoko ZALDUA-argazkiak

MOLINERO PINTURAK



Etxe barneko hezetasan eta kondentsazio problemak moldatuko dizkiugu eta gainera, barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoen araberako prezioetan.

Eztegara 19 - ☎ 63 02 40 BERA

Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



ERRO BIDAIAK

✕ HERRIAK
✕ MENDIAK
✕ TURISMOA
✕ TREKING eta
BIDAI ALTERNATIBOAK

BIDAI
AGENTZIA
G.A.T. 2.015

ADUANAKALEA, 5
☎ 943 - 615177
☎ 943 - 619489
FAX 943 - 619517
20.300 IRUEN

Euskal dantzak ikasteko matrikula zabalik dago

Ikastaroa larunbatetan emanen da eta sei urtetik goitikoei dei egiten zaie bereziki

K. BOAN ETA J. IRIGOIEN


Gure Txokoaren dantza taldea, zalan-tzarik gabe, inguru honetan tradizioz luzeena duen taldea dugu. Adin desberdi-

netako neska mutilen artean, 200 dantzari inguru biltzen ditu gaur egun bere baitan, eta Beran bertan ez ezik maiztan bertze herri eta hirietatik ere deituak izaten dira

dantza emanaldiak eskeintzeko.

94ko denboraldiari dagokionez, urtarrilaren 8tik aintzineraren emanen zaio hasiera ikastaroari. Deia berez sei urtetik goitiko-

tzat egina bada ere, tikiagoak ere gustora hartuko omen dituzte. Animatuko direnak larunbat honetarako deituak daude, eguerdiko 12etatik 1etara Eztegarra frontoian.



Gaineko argazkian Fernan Gorostidi pintore baztandarra dugu. Bere pinturak ortziralara bitarte daude ikusgai Kultur Etxean.

Jose M^o Olazabal golf jokalararekin duguna Daniel Sierra da. Daniel Beratar baten semea dugu, 'Bar Español'eko Denis-en semea. 20 urte ditu eta Londresen bizi da. Golfean honzekero lortuak dituen sariak direla eta, urrun ailegatuko dela iragarria dute Ingelesak.

ttipi-flash

❖ Apostua

Urtarrilaren 15ean, larunbata, Eztegarra frontoia pilota apostu baten lekuko izanen da. Alde batetik Mikel Arregi 'Ertxin' eta bertzetik Luis M^o Pikabea 'Loro' ari-tuko dira elkarren kontra. Partidua 22 tantutara izanen da eta 'Ertxin'ek 10 tantuko abantaila utziko dio 'Loro'ri.

❖ Ipuin sariketarako

Hilaren 11rako bidali behar dira Gure Txokoara Haur Ipuinen XXII. Bera Sariketa eta VIII. Gure Txokoa Ipuin Sariketara aurkeztu nahi diren lanak.

❖ Uholdearen

arrastoak Beran ere. Bidasoaren bazterretan dauden etxetan ura sartu zen eguberri egunean eta Kanposantutik behitiko karretera moztua gelditu zen ordu batzuz.

❖ Bera-Zizurkil

6, 7 eta 8. mailetako 45 gazte egon dira Zizurkilen Bera-Zizurkil hurremanen barnean.

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK
BURDIN TRESNERIA
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

TXOKOA OSTATUA

X Eguneko menua
X Asteburutan, kaxuelak eta karta
X Gosari, bazkari eta afariak aintzinetik eskatuta
X Pintxoan espezialduak X Gazte giroa
Tfnoa: 630286, Altzate • BERA



ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 BERA



Legia 11 - 63 06 64 BERA



KIROLAK ZELA

Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98

BERA



Urte bukaera eta hasiera mugituak Laminacionesen

1993ko konbenioa sinatu zen eta hilaren 27an huelga orokorra egingen da

AITOR AROZENA

Laminacionesen 1993ari dagokion konbenioa sinatu zuten ELA, UGT eta Cuadros sindikatuek. Konbenio berriak, %2,3ko igoera suposatuko du soldatetan. ESK konbenioaren kontra agertu zen eta LAB eta CCOO siderurgia guztian negoziazioa egiteko esperoan daude sinatzeko. Abenduaren 14tik 16ra itxialdia ere egin zuten komiteko zenbait sindikatuk.

Urte hasieratik, Laminacioneseko zuzendaritza eta komitearen arteko negoziazioak burutuko dira gai sozialak kontutan hartuz. Zuzendaritzak txanda normalaren ordutegia aldatzea eta barkazioen zati bat abuztuan hartzea eskatzen du. Komitekoek berriz, euskara lantegiko harremantant erabiltzea eta langile kopuruaren ebo-



Joxemane

Sokatira taldea gogoz aritu zen Doneztebeko herri kirol jaialdian

luzioan parte hartzea eskatu dute.

Aurten, industria planarekin batera lan plangintza martxan paratuko da eta hau era egokian ezartzea begiratuko dute sindikatuek. Huelga orokorra urtarrilaren 27an egingen da eta bertze eskakizunekin batera LABek euskal sindikalgiaren espazio propioa eskatuko du.

Argazki lehiaketaren sariak banatu zituen Beti Gaztek

J.J. Cabezudo Zabalala donostiarrak eskuratu zuen Beti Gazte elkarteak antolatutako III. argazki lehiaketaren lehen saria 'Foto 2' izeneko lanarengatik. Bigarren saria gai librean Getxoko J. Pedro Fernandez Ferrerasesk lortu zuen 'Manolo'

lanarekin. Kirol argazki onenaren saria Benito Canterok etxeratu zuen 'Iñigo Igartua' izenpean aurkeztutako kolorezko argazkiarengatik.

Presentatutako 120 argazkiak hagitz kalitate onekoak zirela azpimarratu dute antolatzaileek.

ttipi-flash

❖ **Bereaun**
egiten ari den egoitza berrirako 120 milioi pezetako mailegua eskatu du 'Transportes del Bidasoa' garraiolarri elkarteak. Zerbitzu desberdinen artean gasolindegia ere paratuko dute.

❖ **450.000**
pezetako aurrekontua izanen du aurten "III. Lesakako udala" txirrundulari sariak, Euskadiko federazioak Lehendakari sariaren barnean sartu ondotik.

❖ **Saskin**
Alberto Arantziabiak buztinez egingako eskulenen erakusketa izanen da urtarrilan.

❖ **J.Luis Larralde**
Beti Gazteko jokalaria eta lehendakari izandakoaren omezezko futbol txapelketa jokatu da egun hauetan.

❖ **Itoizko**
urtegiari buruzko informazioa eskatuz, Zubietako udaletik iritsitako mozioa ez zuen onartu udalak PNVren kontrako botoekin.

KOXKILA
OSTATUA

Larunbatetan
mus txapelketak
sari ederrekin

Zarandia 4 - LESAKA

IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA

Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

BEREAU
jatetxea


Lesakako Bidegurutzean
Tfnoa: 637382 - LESAKA

XATURETXEA



JATETXEA

Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA



ARRANO



OSTATUA

Legarrea - LESAKA



Bertze herritar batzuk arkitektuaren alde

Chocaroren kontrako kritikak ez dituzte bidezkoztat jotzen

Personaiak



Domekenea landaturista deitutakoak hartzen dituzte. Pakitari galde egin diogu:

- Ze aldetako jendea da gehien etorri dena?
- ◆ Asteburuetan, Bizkaikoa. Egun gehiago pasatzeko, Madrid, Barcelona eta Valenciatik. Hau, udaldeen izaten da, negu partean asteburuetarako etorzen baita.
- Zein da etorri den jendeak herriaz eta inguruaz eraman duen iduria?
- ◆ Inguru guzia hagitz polita dela, baina herria, hemen ikusi duten politena omen da.
- Ze adineko jendea ibiltzen da?
- ◆ Denetatik, baina bikote gazteak bereziki.

PELLIO APEZETXEA

Ondar-aintzineko *ttipi-ttapan* Chocarro arkitektuari buruz errana ez da denengokoa izan. Zenbait herritarren ustez, aski tekniko ona da, eta Etxalarren, nahiz inguruko herrietan bertako etxe-estiloa ongi zainduz ari dela diote.

Berri-emailearen oharra.- Goiko berriarekin aipatutako alean zihozten argazkiek nahasbidea ekarri dute, eta argitu beharrean nago. Lehengo *elxe* baten eta oraingoaren argazkiak ondoan paratzearen asmoa zera zen: estiloari ez egokitzea zer den adieraztea. Azpian erraten zenak, ordea, obra berri hori Cho-



Eskolako neska-mutikoak irratiratu munduan trebatzen

Argazkia: Pello

carrok eginga dela pentsatzera eraman du jendea. Garbi geldi bedi, bada, eskolaren egilea ez izateaz gain, horrela egitearen kontrakoa zela Chocarro.

- **Landagain** eskolaren beheko aldea ixteko lanak, Juan M^o Iturriari eman ditio Udalak.
- **Itxitako** presagaineako zakartokia

Erkiziak moldatuko du. Horren ordez, kanposantu ondoan, eta beheko Olaldean, karreteratik 300 metroa, zakartegi bana ireki dira.

LORA DENDA

TAURULA
 Bitiria LESAKA
 627542
 bitxikeriak • opariak • eskulangintza

EKAITZA CAFE
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA
 Lagunekin elkartzeko toki egokia
 Tfa: 948 - 627547
 Plaza Berria 13 - LESAKA

«U S O A»
NEKAZARI KOOPERATIBA
 Ganaduarentzat pentsurik egokiena
 Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

SASKI OSTATUA
 LESAKA

ORDOKI
ALTZARIAK
 Estilo guztietako mobleak
ERAKUSKETAK:
 Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
SALMENTAK: Plaza Zaharra 27
 Tfnoa: 637034 - LESAKA
 Larunbat arratsaldetan zabalik

EROSLE
 LESAKA
 Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena
Frexkuena zugandik hurbilago
 Bittiria 67 - Tfnoa: 637264

BOAN TAILERRA

 CITROEN Banatzailea
 KOTXE BERRIEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
 Herriko Etxeko Plaza - BERA



Olentzeroa joan denez urte berriari begira


Nafarroako Aurrezki Kutxak udalaren baimena badu bulego berria egiteko

OSKAR TXOPERENA

Argazki oinean diogun bezala, euri-tsuak izan ditugu aurtengo Eguberriak. Bezperan hasi eta batez ere, Eguberri egunean izugarriak bota zituen. Guk dakigunez, Igantziko Bentako zenbait kuadra eta Gaikolako kiwi eremua izan ziren kalte-tuenak. Eta elurra heldu dela diote gainera...

CANek bulego berria

Udalaren baimena hartua du dagoeneko Nafarroako Aurrezki Kutxak bere egoitza berria egiteko. Barberna eta Osindegiaren tartean dagoen lur eremu ttiki horretan



Erauntsiei aurre egin behar izan zieten olentzeroan ibili zirenek. Halere, urtero bezala, bortz izan ziren lehiaketan

egiteko asmoa dute. Hagitz polita omen da bulego berria, proiektuan behinpein. Halere, bi aldaketa eskatu dizkio udalak proiektuan. Bata, Chocarro arkitektuaren gomendioz, NAKren izena txiki-

ztea, bere ustez haundiegia eta proportziorik gabekoa baita bulegoaren tamainua ikusirik eta bertzea berriz euskara mankomunitatean onartu zen bezala erdaraz izan beharrean euskaraz izatea.



Mendibileko Bixente eta Asuncion urrezko ezteiak bete zituzten

Zakurrak libre

Kexu daude Igantziko artzaiak etxeren bateko zakurrak mendian libre utzi eta ardiak hil dituelako. Idatzi bat eraman dute udalera guzi honen berri emanez.

ttipi-flash

- ❖ **Abesbatzak** zozketatutako eguberrietako zaria 1.869 zenbakiari tokatu zitzaion.
- ❖ **Zubietako** udalarekin bat egin du igantzikoak Itoizeko urtegiari buruzko eztabaida irekitzea eskatzerakoan.
- ❖ **Nafarroako** 'Proyecto Hombre' delakoari 20.000 pezetako laguntza eman dio udalak.
- ❖ **Mugarik gabe** erakundeak El Salvadorrerako hauteskunde demokratiko eta paketsuak eskatuz bidalitako idatzia onartu du udalak.
- ❖ **Frain aldeko** terreno komunale-tan egindako gorotz pilaketa salatu eta debekatu du udalak azken plenoan.

SAROB
okindegia 
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

EKAITZA OSTATUA
Goizeko 10etan irekia asteleheneetik ortziralerara
Altzate - BERA

KOXXKONTA

Sagardoa botiletan saigai
Deitu erreserbak egiteko
Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

BORTZIRI
ASISTENZI TEKNIKORAKO ZERBITZUA
* TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa
* Bakarkako, kolektibo edota satellite bidezko antenak ere paratzen ditugu
Itzea 4, behea - BERA Tfnoa: 63 10 91



Olentzeroaren ondotik, Errege eguna ere berexia izanen da

Bertzalde, basurde batek Xantus Burgete erasotu eta hanka batean larriki zauritu zuen

MARTA ITURRIA

Urtarrilaren 5ean eta Meza bukatu ondotik, hortze izanen ditugu Berganea eta plaza aldean erregeak esperatzen herriko neska-mutiko guztiak. Pisuetatik goiti herri-arailegatzen direnean, beraiekin batera elizara joaten dira eta han hartzen dituzte urte guzian esperatutako opariak. Olentzeroak aintzinetik ekarri ez baditu behinpein.

Basurdeak zauritua

Lehengo aldi hortan Arantzako gizon koadrila bat basurde ehizian zebilela, bat ikusi, tiroa bota eta kolpatu egin zuten. Basurde kolpatua jo-



Ea nola portatzen diren aurtengoan Erregeak

katu egin zitzaien eta Xantus Burgete harrrapatu. Honek 24 puntu ditu hankan basurdearen hautsikiak eginak.

Seinale pila paratu dituzte karreteran

Igantziko Benta alderako karretera moldatu ondotik seinalizazio berria ere

paratu dute. Egia erran hagitz ongi paratu dituzte seinale berriak, nahiz eta

Igantziko harrobian Arantza aldera bideratzen duen seinalea ez duten jarri.

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

BERA ☎ 630735 • IRUN ☎ (943) 622305



KATTU

OSTATUA
JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • **LESAKA**



fm
FOTO
MENA
ELIZONDO

Ezkontzetako erreportaiak
argazkiak eta bideoa

MARKOAK eta MOLDURAK

Eta orain, zure koloretako argazkiak
ORDU BATEZ ERREBELATUAK ditugu

Tfnoa.: 58 01 55 • Santiago 40 • **ELIZONDO**



Zaharrenek eusten diote kinto bestari

Borteneko hiru anaiak gurasoak bisitatzera etorri ziren Ameriketatik

IXABEL ETA JOSUNE

Lautanogeitasei urte bete dituztenek kinto besta ospatu zuten abenduaren 8an. Duela 26 urte hasi omen ziren besta hau egiten Bonoa ostatuan, bainan ostatu hau itxi zenetik herriko ostatuan egiten dute bazkaria. Hasieran 24 kinto omen ziren, besta egiten hamabi hasi ziren eta aurten bakarrik hiru bildu dira, nahiz eta zazpi hauek ere bizi diren: Juanito Apeztegia, Prudencio Ganboa, Maximo Errandonea, Patxiku Ibarra, Miguel Mariezkurrena, Doro-teo Aranburu eta Joxe M^a Iriarte.

Egun berean, Elor-Txuri ostatuan 64, 65



Maximo Errandonea, Prudencio Ganboa eta Juanito Apeztegia

eta 66 urte dituztenak ere kinto besta izan zuten. Iaz 50 lagun elkartu ziren eta aurten bakarrik 30 bildu dira.

Amerikanoen bisita

Pedro, Martin eta Juan Inda, Bortene-koak gurasoak bisitatzera etorri ziren. Le-

henbiziko bi anai etorri ziren eta gero bertzea. Anai batek 29 urte bazituen etorri gabe eta honek erraten zuenez, "herria ez dut

ezagutu eta ez herria bakarrik, jendea ere arras ganbitua dago". Ziotenez orain ongi bizi gara hemen, baina bizimodua han dutenez, han gelditubeharra dute.

Herri Kirolak

Herri kirol taldekoek urtero bezala, afaria egin zuten abenduaren 25ean eta hogeitamar bat lagun bildu ziren. Ondotik giro ederra izan zuten trikitilariekin.

Olentzeroa

Ehun bat haur bildu ziren etxez etxe kantukantari.

Iñauterietako bile-ra ere egin zen eta dagoeneko harat honatean hasia da jendea, karrozak prestatzen.

GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA

SANTAMARIA
Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

ZURE OSASUNA ETA EDERTASUNAREN ZERBITZURA

Osasun fisikoa eta sikikoa tratamendu naturalekin
•••
Bizkairezurreko arazoak
•••
Zelulitisa eta loditasunaren kontrako tratamendua
•••

Jean Paul Bouchet
Dokorea

☎ 45 07 08 • DONAMARIAKO BENTA

Mari Cruz
LENTZERIA

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE

AMEZTIA
Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
Tf: 450028 - DONEZTEBE

Doneztebe

Eskolako kirolguneak asfaltatu nahi dira

Musika eskolako pedagogia plangitza bertzalde, onartu eta Nafarroako Gobernuari igorri zaio

TXEMA ALDABE

'San Miguel' eskola publikoko kontseiluek bi saskibaloizelaia berriz asfaltatzea eskatu dio udalari, orain dagoen zola-ekin neska-mutikoek bertan izaten dituzten eroriak arront arriskuak direlako. Eraberean, gaur egun futbol zelaia denaren zati bat eta frontoiaren ondoan dagoen toki tiki bat ere asfaltatzea eskatu da, horrela voleibol pista egiteko.

Udalak, azken batzarrean, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza eskaria bideratua dagoela erran du. Alde batetik, futbol eta saskibaloizelaia asfaltatzeko Hezkuntz sailari egin zaio subentzio eskaria eta igerilekua, tenis eta voleibol zelaia mol-datzekoa, bertzalde, Ongizate, Etxebizitza eta Kirol sailari.



Jende parrasta ibili zen abendu hasieran BKZk antolatutako ikastaroetan

Musika eskolako pedagogia plangintza eta iazko dirulaguntza onartu dira

Musika eskolak ikasturte honetarako aurkeztutako pedagogia plangintza onartu du udalak eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntz eta Kultur sailari igorri zaio.

Iazko ikasturteari dagokionez, Donez-

tebeko ikasle bakoitzari, asignatura eta hilabete bakoitzeko 600 pezeta emanen zaizkio, beti ere guttienez bi urte herrian erroldatuta eta zergak ordainduta izanez gero.

Eskolak luzatutako 329.400 peze-

tako dirulaguntza eskaria onartu aintzinetik, ikasleek arestian aipatutako baldintza horiek betetzen dituztela begiratu beharko da.

1993-94 ikasturterako ia ehun ikasleko izena eman dute musika eskolan.

ttipi-flash

❖ **C.D. Erreka**
elkartek abenduaren 22an zozketa-tutako saski handia 1.983 zenbakiari egokitu zaio. Doneztebeko M^a Jose Iribarrenek etxeratu du saria. Txartela 'El Cafe' ostatuan erosi zuen.

❖ **Suteak**
itzaltzen laguntzeko talde bat sortzeko asmoa dago eta horretarako zenbait ikastaro egingen dira langabezia dauzkan gazteei zuzendua, batez ere.

❖ **Baigorri**
abesbatzak kantaldia eskeini zuen abenduaren 22an.

❖ **Askin inguruko**
herri lurtean 10.000 m²ko harrobia egiteko baimena eman dio udalak ahobatez Valentin Gamiori.



TELLETXEA
MOBLEAK

Moble erakusketa haundia

- Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu. Fabrikanteak gara.
- Haritz, gereziando, gaztainondo eta pinuzkoak.
- Armario enpotratuak.
- Tresillo eta tapizerietan aukera zabala.
- Ordaintzeko errextasunak eta zure erosketengatik opari ona eramanen duzu.

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE



Monika eta Fabiola, Paolekobordako bizilagun berriak

Bi urte daramazkite hemen inguruan eta herritarrekin ederki moldatzen dira euskaraz

PELLO ETXEGIA

Orain dela hilabete batzuk Paolekobordara bi neska etorri ziren bizitzera. Beren ize-nak, Fabiola eta Monika, bat Iruñakoa eta bertzea Alemaniakoa. Paolekoborda leku lasaia eta polita da eta aski gustora omen daude bertan.

Orain gainera, familia haunditzen ari zaie: oiloak, ahateak, konejo edo untxiak, Marga eta Hester txerriak eta azkenik, Maritxu izena jarri dioten astoa ekarri dute.

Bi neska hauek urte pare bat daramazkite hemen inguruan bizitzen, lehen Sunbillan eta orain Donamarian.



Monika alemaniarra, Marga eta Hester txerriak eta Maritxu astoarekin

Bi urte bakarrik izan arren, herritarrekin euskaraz ederki moldatzen direla erran beharra dago.

Hamar lagun alfabetatzen

Donamariako ostatuan, hamar bat lagun biltzen dira aspaldixko

euskaraz alfabetatzen. Astero astero ari dira horretan, astelehenean eta ortzegu-netan, hiruetatik bor-

tzetara. Animo eta ea aunitz ikasten duzuen.

Poniak eta basurdeak Eguberrietan

Malerrekan euskara indartzeko sortu berria den Langarra taldeak antolatutako Eguberrietako ekitaldietako egun bat Donamarian ospatu zen. Abenduaren 27an, goizeko 11ak aldera, poniak eta basurdeak ibili ziren herrian barrena eta herriko neska-mutikoez ederki pasatu zuten.

Egun berean, Malerrekako bertze herrietan egin beharreko ekitaldietan parte hartzeko autobusa dohainik ibili zen harat honat.

ARCO IRIS
GOXOKI-DENDA

Merkatariak 21 • © 450166 • DONEZTEBE

ttipi-ttapa

5.700 harpidedun
20.000 irakurle

TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN - Tfnoa: 45 04 91

BELARRA Kafetegia

Plater konbinatuak

Amezitia 3, Tf.: 45 03 06 - DONEZTEBE

FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBEN

Elizagibela 4



MALDAERREKA, S. L.

Urtarrilaren 7tik aintzinerak
24 ORDUTAN.

ZERBITZU GUZIAK EGITEN DIRA
Tfnoa: 637404

Ituren

Kultur Egunak, urtarrilaren 5tik 8ra ospatuko dira

Egun guzietan traje zaharren erakusketa, hitzaldiak, txapelketak eta bertze hainbat ekitaldi izanen dira

IBAN | ISASI

Agindutakoa bete behar denez, ale honetan Ibintza gazte elkarreak antolatutako Kultur Egunen egitaraua doakizue:

Urtarrilaren 5a (Errege bezpera): Traje zaharren erakusketa irekiko da 12etan eta Kultur egunek iraunen duten egunetan ikusgai egonem da. Arratsaldez haurrak joariekin aterako dira eta gaeuz afauria eta bertsolariak.

Urtarrilaren 6a (haurren eguna): Eguerdian dantzariak eta trikitalariak. Arratsaldez berendua, opzari banaketa, bideo emanaldia, etab...

Urtarrilaren 7a:



Kultur egunetan giro polita izanen da

Arratsaldez hitzaldia: 'HIES edo SIDA eta antisorgailuak', Koldo Iturenko medikua izandakoaren eskutik.

Beranduxeago kantaldia izanen da.

Urtarrilaren 8a: mus eta futbolen txapelketak. Arratsaldez

talo eta gaztain jatea eta sagardo edatea eta gaeuz rock kontzertua: Nahizer Bizkor eta bertze talde bat.

ttipi-flash

❖ **Mikel Saralegi** leitzarrak harria nola jasotzen duen erakutsi zien eskolako neska mutikoei abenduaren 21ean Aurtizko frontoian. Faustino Saralegi bere anaiak berriz, alturan enborra mozten erakustaldi ikusgarria egin zuen.

❖ **Mendaurko** urtegiko ingurua zikina dagoenez bertan zaborra edo kondarrak ez botatzea eta Trinitateko ermitako ateak ixtea eskatzen zaie bertara doazen pertsona guztiei.

Malerreka


Euskal Telebista hobe ikusteko 26 milioi pezeta beharko da

Eratsungo errepetidorean 22 metroko dorrea jarriko da

A..A.

Malerrekako sei allkatek ETBko Luis Ziarraoarekin egindako bileran, Eratsungo errepetidorean 22 metroko dorrea paratzea beharrezko izanen dela erabaki zuten eta horretarako 22 milioi pezetako inbertsioa behar da. Eratsundik, Zubieta eta Doneztebiko errepetidoreetara bidaliko da seinalea.

Ekipo zaharrak telebista kate pribatuak hartzeko erabiliko dira



lea. Donezteben, 4 milioi pezeta balio duten zenbait aparailu jarriko dira eta aurrez egindako txabola bat ez bada ekartzen, bi metro luze zabaleko bat egin beharko da.

Lehengo ekipo zaharrak, telebista pribatuak hartzeko erabiliko dira, Nafarroako Gobernuaren kanaletik hartzen ez diren bitartean, behin-behinean.

Goizueta

Artikutzari buruzko eztabaida Goizueta eta Donostiaren artean

Adierazpen gogorak bota dizkiote elkarri Lekuona alkateak eta Ordoñez Donostiako PPko zinegotziak

ESTEBAN AROZENA

Multak kobratzeko Artikutzako guardaren eskubide eza adieraziz orain dela hilabete batzuk udalak kalera-tu zuen bandoa ez da donostiarren gustokoa izan, Ordoñez zinegotziak luzatu dituen adierazpenen arabera. PPko burukide honek gogor erasotu zuen Goizuetako alkatea, besteak beste "cuatrero" hitza erabiliz "itxiturak hautsi eta aziendak Artikutzara sar ditzaten esaten dielako herritar ganaduzaleei".

Baina Miguel Jose Lekuona alkateak emandako erantzuna ez da xamurragoa izan.



Inoiz baino partaidetza haundiagoa izan du bertso paper lehiaketak. Argazkian maila ezberdinetan sarituak suertatu zirenak

Xabier Mikel

Alkatearen ustez "bere erantzunak irakurritakoan ikusi ahal denez Ordoñezek dena

oker ulertu du, behar bada euskaraz ez dakielako. Horregatik gure hizkuntza ikas

dezan animatzen dut". Dena den, interpretazio oker hori itxura hutsa izan ote denaren

susmoa ere badu alkateak. "Ordoñezek eginkizun nagusia bazterrak nahastea, edozein desprestigiatzea eta txorakeriak esatea baita, egunkariaren irakurleengan ideia faltoak sortaraziz".

Lekuonak garbi uzten du hainbat urtetan zehar herriko ganaduzaleek Donostiako udalaren eskutik jasan duten injustiziarren berri ematea zela bandoaren helburua. Artikutzan harrapatutako aziendak jasotzeko isun administratiiboak ordaindu dituzte betidanik herriko artzaiek eta hori legearen aurka omen dago.

Areso

Umeek ari diote probetxua ateratzen jostetaparkeari

Herritar gehienak elkartu ziren bere inaugurazioan

JUANA M^a SAIZAR

Bedeinkapenaren ondotik buruhandiak ibili ziren eta herriko umeekin osatutako talde batek euskal dantzak eskeini zituen. Jende aurrean agertu zireneko lehen aldia zuten baina oso ongi dantzatu zuten. Herritarren arteko pilota partida eta sokatira saioarekin bukatu zen ikuskizuna eta ondotik denak eskola barnera



Itxaso Onsalok moztu zuen zinta

sartu ziren gosari prestatua. Jendearen bikaina baitzegoen borondatearekin



Santa Luzia egunean jostunek afaria egin zuten

15.000 pezeta bildu eta zitaion bere tresnak sokatira taldeari eman erosten laguntzeko.

Leitza

Aurrerak antolaturik, mendi ibilaldiak oinez eta bizikletaz

Lagunarte giroan Euskal Herriko eta Leitzaoko mendiak ezagutzeko aukera paregabea

JOSEBA AZPIROZ

Berri hau, Kontxik eta Kepak Iñurrategi anaiekin K2 mendira egin zuten espedizioan ateratako diapositiben emanaldiaren ondotik eman zuten elkartekoek. Lagun arteko giroan, kirola eginez, Euskal Herriko eta Leitzaoko zenbait mendi ezagutzeko aukera dago ibilaldi hauetara joanez:

Oinez egiteko:
Aitzgorri-Urbiabilbeltzaren 16an; Anboto-Urkiolaotsailaren 13an; Adi-Ortizanzurieta mar txoaren 13an; Leitza-Arantza apirilaren 17an eta Auñamendira maiatzaren 22an.

Mendi bizikletaz:
Leitza-Andoain-Leitza hilbeltzaren 8an; Uitziko gaina-Oringo aska-Basakabi-Leitza otsailaren 27an; Leitza-Aizan-Urdola-Sasain-Ixtegi-



Argazkian Aliñeako 11 basurdekumeak. Basurdeak (arra eta emea) itikitan bildu zituzten eta orain itxitura batean dituzte sartuak.

Sasain-Urkizu-Plazaola-Leitza mar txoaren 27an.

Ibilaldia egitera animatuko denak, egun batzuk lehenago eman behar du izena Maimur edo Astiz liburudendetan, horrela garraio kontuak antolatu ahal izateko.

Ekitaldi ugari Errege Bezperan

Erregetako ospakizunak direla eta, 4ean, pajeek kartak bilduko dituzte plaza 6etan. 12etan berriz, zintzarri-joale astintzea izango da eta ondotik baratzuri

zopa eta gazta jatea Aurreran. 5ean goizeko 10etan umeak ibiliko dira kalez kale zintzarriak astinduz eta arratsaldeko 6,30etan ailegatuko dira Erregeak.

ttipi-flash

❖ **Kabalgataren** gastuak ordaintzeko, Aurrerak urtero bezala zozketa bat antolatu du.

❖ **Karrape** irratian zozketatutako saskia Iñigo de Carlosi egokitu zitzaion.

❖ **Aurrera** Futbol taldea bazkide berrien bila dabil. Laguntzak 2.500 pezeta suposatzen du denboraldi bakoitzeko.

❖ **Adierazpen** askatasunaren aldeko Bilboko manifestazioa zela eta (Leitzaatik autobus bat bete joan zen), Leitzaoko Amnistia-aren aldeko Batzordeak abenduaren 18rako, eskoletako jangelan antolatu zuen herri afaria, hilbeltzaren 5ean, 9etan izango da.

Lorea eta Idoloa

ileapaindegia
 Tfnoa: 610907 - LEITZA

Zati honek
1.500 Pta.
 balio du
 1.500 : 5.700 errebista =
 0,26 Pta. errebista bakoitzeko


 Eskuinik gabeko besomotzak, ezherrik gabeko batekin elkartu nahiko luke eskularru pare baten erosheta erdibanatzeko.
 Martin SAGASTIBELTZA
 Leitza (Nafarroa)

GAZTELU ITURGINTZA
KALEFAKZIOA
 Elgoien 32 • Tfnoa: 510086 • LEITZA



Besta berezia egin zuten Zaharren Erresidentzian

Hilabete bat inguru egon ziren Eguberrietako ekitaldi hau prestatzen

J. IGARABIDE ETA AA.

Abenduaren 22a egun berezia izan zen 'Baztan' zahar etxean dauden 150 adintuendako eta bertan lanean ari diren 38 lagunen dako. Eguberriak dirrela eta hilabete batez entsaiatzen egon ondotik beraiek prestatutako ikuskizuna erakutsi zuten.

Lehenik, 'Tragasardinas' izeneko antzeslana egin zuten. Gero, kantuen txanda izan zen eta 'Markesaren alaba' edo 'Gernikako Arbola' kantatu zituzten Maria Fagoaga, Basili Dendarieta eta Juanita Jauregik. Ondotik, txiste pare baten antzespina, olerkiak eta 'Un, dos, tres' lehiaketa ere izan zuten.

Bestari bukaera emateko mexicanak dantzatu zituzten horretarako egoki jantziak, eguberri kantak kantatu eta desfilea egin zuten.



Zahar etxean antzerkia ikusi, kantak aditu edo mexicanak dantzatzeko aukera izan zuten abenduaren 22an
Argazkia: Foto Zaldua

San Anton eguna ospatuko da hilabetearen 17an

San Anton besta egun haundia da Baztanen eta nekazariak berriz ere elkarrengana biltzeko probetxuko dute

Ekitaldirik aipagarriena Elizondoko Zaharren Erresidentziak urtero antolatzen duen errifa izan

ten da. Jokoan behibat (lehen saria), zerrria, bi bildots eta urdaiazpikoa. Goizetik, albinte batek behia

herrian barna paseatuko du, jendeak ikusteko eta zozketa, beti bezala, Herriko Etxeko balkoian egiten da eguerdian, mezaren ondotik. Bertsolariak eta txistulariak aditzeko eta hameketakoa probatzeko aukera izanen da.

ttipi-flash

Ordenantza

berrien aurkezpena, (Balleko Ordenantzena), eginen da hurrengo Junta Generalean. Oraingoek 400 urte dituzte. Duela 12 urte izan zen aldatzeko asmorik bainan etzen egin. Orain taldeak sortuko dira aztertzeko eta horretarako deia luzatuko da.

San Francisco

Javier ikastetxeko 8. mailakoek egingako bi txerriren zozketan 4006 zenbakia izan da saritua. Zenbakia-aren jabeak dei dezala 581208ra edo eskolara joan.

Iñauteriak

Ikastaroen artean, bat Iñauterietako mozorroak egitearena da. Arizkunen gomaespumarekin egiten ikasten ari dira Amaia Zunzunegikin batera.

Erratzuko

frontoiaren gibeletako obrak luzerako doazi. Lehen botatako zementoa harrotu dute euriarengatik.

**MENDI
OSTATUA**

Santiago 25 - ☎ 580313
ELIZONDO

MERKEALDIAK
Tela eta arropetan

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

**BAZTAN
FUNERARIA**

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA
SALMENTA • TRASLADOAK

Jaime Urrutia 53 ELIZONDO
Tfnoak: 580924-580814-580373

ERLOJU eta BITXI DENDA

ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO

ARROPA DENDA



**CERVANTES
HELVETIA SEGUROS**



Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

Baztango 27 urruneko baserrik telefonoa estrenatu berri dute

Horietatik hogeitan telefono seinalea sistema zelularrez ailegaten da, antena batez, eta gainerakoetan beti bezala, poste eta kablez

A.A.

Arizkungo Lartezarrea eta Lopez Borderias Herri Lanetarako kontseilariaren bulegoaren arteko konferentzia batekin zabaldu zen telefono sare berria. Proiektua burutzeko, 823 milioi ptako inbertsioa egiten da, horietatik 252 Nafarroako Gobernuak paratuak. 27 telefono hauek Arizkun, Aintzialde, Almandoz, Amaiur, Aniz, Azpilkueta, Berroeta, Zozai, Erratzu, Gorostapolo, Gartzain, Iruñita eta Zuraurren ezarri dira.

Sistema berrikoak

20 baserrian, sistema zelularren bitartez jarri da telefonoa. Be-



Zigako San Andres eguneko bazkarian giro ederra egon zen Arg.: Pablo

rezitasuna zera da: ez dela inolako poste eta kablerik bota behar baserriraino, telefono lotura irrati-seinalez egiten baita.

Ludoteka Concepcionistetara

Leku aldaketaren arrazoi, Santiago elkartearen plangintza berriak 10 urtetik

gorako haurretara mugatzean dago. Ludotekan 3 urtetik gorakoak onartzen dira.

ttipi-flash

- ❖ **Olentzero**
gauean eta urteberri egunean, eskean ibili ziren etxe etxe Basaburuan. Errege egunean Zigan ere ibiliko dira.
- ❖ **Kabalgatarako**
udalak 125.000 ptako dirulaguntza eman dio Elizondoko alkateari.
- ❖ **Amoarrain**
aunitz hilik agertu dira, batez ere Elizondoko Giltxaurdi zubi inguruan. Nafarroako Gobernuko ingurugiro sailaren arabera onddo baten eraginez hil dira amoarrainak.
- ❖ **Elizondon**
jendea kexu karriken egoeratik. Ura, argia eta telefonoa lur azpitik sartzen ari dira eta obrak gibelu dira. Apirilerako akituak izanen omen dira.

Dirker
Loafghid
11.23.5.1992
111.27.8.1982



SOULE

GURUTZE eta HILARRIAK

☎ 45 30 38 ARIZKUN - ☎ 12 35 72 IRUÑA

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI

LARRAMENDI • Supergarbiteta Idorreen
Saskaitz plaza 1 (Butano ondoan) • ☎ 45 23 81 • ELIZONDO

Edredoia, alfonbrak, arropak eta larruak, idorreen garbitzen dugu

FZ
FOTO ZALDUA

ZURE EZKONTZARAKO
FOTO eta BIDEO
Erreportai on bat

ELIZONDO ☎ 580491
DONEZTEBE ☎ 450364

MARKOEN TAILERRA eta zure karreteak ORDU BATEZ REBELATZEN
DITUGU "FUJI" kalitatearekin.

JATETXEA
Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza



Adinekoen krakadan ehun eta hamar lagun bildu ziren

Bertzalde, Olhain ikastolan olentzeroaren bisita izan zuten eta hurrek antzerkia moldatu zuten

MANEX ETA MIREN

Urte guziz bezala krakada bat ezin hobea eta arratsalde goxo bat, soinu eta guzi, urrikir eskeini diete Pullman jantegiko nagusi eta etxeo andreak Sarako adineko guzietan.

Ehun eta hamar lagun bildu ziren eta guziek eskerrik be-roenak eman zizkionten Borda jaun andreeri eta jantegiko zerbitzariari. Manex Bergarak dioenez, honako hau erran zioten Bordatarrak: "Jakinez adinekoen krakada urrikir eskaintzen dugula, gure zerbitzariak, egun hantako gisa berean urrikir etortzen dire, beren borondate hutssez".



Ikasgelaren apainketa bereziaz aparte, hurrek antzerki bat moldatu dute burasoen aintzinean emateko

Olentzero ikastolan

Olhain ikastolan, abendua heltzen de-

nean, olentzero ttikien amets iturri bihurtzen da. Olentzeroaren bisita, aintzi-

netik prestatzen den horietakoa da. Ikasgelaren apainketa bereziaz aparte, hurrek

Pilotaren berri

Abenduaren 18an, Arrieta trinketean iragan esku huskako partidak **Helduak (Bigarren saila)**:

- Itsasu, 50; Sara II (J. Michel Elizalde eta Pedro Oronoz), 35.

- Sara I (Pierre Arotzarena eta Michel Dibar), 50; Itsasu, 33.

Gazteak (Junior):

- Sara (Christophe Mariluz eta Albert Etcheverry), 45; Senpere, 14.

antzerki bat moldatu dute burasoen aintzinean emateko. Ondotik krakada izan zen.

HERRIKO ETXEO EDANTEGIA

Michel eta Kattin
Guendiaian

Tfnoa: 59 54 25 19
64310 SARA



Jar zaitez esku onetani!

Gure zentroa Metodologia Estetikoan akreditaturik dago. Dermoesteticista batek gidatua eta Mediku Espezialista batek kontrolatua, zure arazoak moldatzeko tratamendu pertsonalizatu bati esker. Gainera Hidromasai Bañera, Sauna, Solariuma, Makilaia eta ilea kentzeko sistemak (elektrikoa, argizari beroa eta argizari epela zainendako espeziala) zuretzako.



Beatriz

Lurrindenda eta Apaindegia
© 58 02 83 • Santiago 53 • ELIZONDO



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • © 580562
IRURITA - BAZTAN

SUKALDE ETA
BAINU MOBLEAK

Egoki-ren banatzaile
baimendua



Urdazubi

Eguberri egunak akitu zaizkigu

Olentzeroa Atsulai elkarteak ekarri zigun aurten

ALIZIA OLAIZOLA

Aurten Atsulai elkartearen eskutik etorri zaigu Olentzeroa eta herrian barna kantuan ibili zen talde bat olentzeroarekin batera. Elizan ere gabon kantak eman zituzten. Eskolako haurrak, ohiturari jarraitzeko, 22an ospatu zuten beren besta ikuskizun aunitzekin. Besta bukatzeko eguberrietako hiru saskiak zozketatu zituzten. 1.a 4510 zenbakiari egokitu zitzaion, Zubiondoan saldua, 2.a 4151

(Olazelaian saldua) 3.a 2152 (Patxi Bentan saldua) eta laugarren eta bosgarren opariak ateraiak daude hau idazterakoan.

□ **Santa Luzia** egunean eta Anastasiarekin jantzigintza ikastarorat joaten direnak bazkaria egin zuten Altzatenean.

Urtearen errepasoa

Ezkontzak: Edurne Ariztia, M^a Luisa Dainziart, Jose Antonio Etxenike, Juan Bengoetxea, Txomin Mihura, Emma Ayuso eta Halty.

Jaiotzak: Ana Mitxelena Irigoien, Xabier Erdoziain Ariztia, Esitxu Suhas Sansiñea, Arantxa Etxeberria

Bengoetxea, Jon Bengoetxea Irigoien. **Heriotzak:** Miguel Azkarraga 63 urte, Klara Iribarren (98), Felix Bengoetxea (73), Presentacion Sagastibeltza (60), Justa Etxeberria (82), Luis Goienetxe (73) eta Mikaela Iturburu (85 urte).



Haurrendako gozamen egunak izan dira

Zugarramurdi

Azkenean lortu izanen ote dute beren arimak lasaitzea?

Sei emakume urte bat baino gehiagoz etorri izan dira lezeetara ortzirale guzietako ilunabarretan konjuroak egiterat

KORO ETA MARGARI

Orain arte deus aipatu ez badugu, berek hala nahi zutelako iduri zuelako izan da. Orain, lau hilabete darabate agertu gabe eta jakitera emanen dugu, gauza bitxia baita: urte bat baino gehiagoz sei emazte etorri dira ortzirale guzietako ilunabarretan beraiekin argizari beltz haundi batzuk ekarriz, eta guziarekin, lezearen barnerat sartzen ziren. Bereki ziotenez, Zugarramurdiko lehengo

sorginen berraragipenak edo erreinkarnazioak ziren eta bortxatuak hil zituztenetik, beren arimek ez omen zuten deskantsurik hartu. Horrengatik etortzen ziren konjuroak egitera.

Medicus Mundi

Abenduaren 20tik 25era, etxetan sobran ziren medizinarik bildu eta kontsultara edo apez-etxera eramaten ziren, gero medikuak hauen egoera aztertu eta M.Mra bidaltzeko.



Azken lau hilabeteotan ez dira agertu. Beharbada lasaitu dituzte animak

EZKONTZAK

Eusebio Zestau Zestau eta **M^a Pilar Gogorza Alduntzin**, Tolosakoak, abenduaren xxan.

Jose Garcia Miguez eta **M^a Jose Otxandorena Baleztena**, Eratsungoa, urriaren 30ean.

Jose Ignacio Merino Martin eta **Ana Rosa Arribillaga Iriarte**, Barakaldo eta Berakoa, abenduaren 18an.

JAIOTZAK

Amaia Sanz Azpiroz, Elizondokoa, abenduaren 6an.

Naiara Igarabide Iparragirre, Erratzukoa, abenduaren 9an.

Nerea Frias Iturria, Elizondokoa, abenduaren 16an.

Cristina Loiarte Lopez, Elizondokoa, abenduaren 16an.

Ohiane Aldabe Etxeberria, Igantzikoa, abenduaren 11n.

HERIOTZAK

Tomas Maia Etxeberria, Arraiozkoa, abenduaren 8an, 72 urte.

Javiera Bengoetxea Otxandorena, Arraiozkoa, abenduaren 16an, 87 urte.

Bonifacia Larraya Sanzberro, Arraiozkoa, abenduaren 18an, 84 urte.

Jose Mari Rezola Estanga, Are-sokoa, abenduaren 6an, 64 urte.

Mayie Daguerre, Sarakoa, abenduaren 15ean, 79 urte.

Andre Pedezert, Sarakoa, abenduaren 16an, 56 urte.

Bixente Agerre, Sarakoa, abenduaren 20an, 80 urte.

Victoriano Berasain Sorondo, Berakoa, abenduaren 15ean, 89 urte.

Martina Garmendia Magirena, Etxalarkoa, abenduaren 12an, 93 urte.

MARTIKO

Gastronomia gustoko baduzu, MARTIKOrekin batera urrun ailegatuko zara



- **Ahate gibela**
- **Urdaiazpikoa**
- **Ahate paparra**
- **Ahate hegalak**
- **Ahate izterrak**
- **Izoki keztatua**

**GURE PRODUKTU GUZTIAK OSASUN
BALDINTZA ZEHATZENEKIN EGINAK DIRA**

Zalain Poligonoa, Bera (Nafarroa) ☎ (948) 63 07 00 • Fax 63 12 13

BEHARREZKO

TELEFONOAK

SOS Nafarroa eta Urgentziak 088/061

Osasun Zentruak

Elizondo 452367 / 580235

Doneztebe 450300

Lesaka 637428 / 637336

Leitza 510248 / 510573

Nafarroako Ospitaleak

Nafarroako ospitalea .. 102100

SSko urgentzi zerbitzua 246750

Virgen del Camino erresidentzia 109400

Gurutze Gorria 226404

Gipuzkoako Ospitaleak

Irungo ospitalea 614600

Gipuzkoako ospitala ... 460299

Erresidentzia 453800

Anbulatorioak

Irun 630264/621106

Anbulantziak

Oitz 450242/450342

DYA

Lesaka (larrialdiak) (943) 464622

Doneztebe (larrialdiak) 171717

FUNERARIA

Doneztebe 637404

Elizondo 580924

Lesaka 637404

Suhiltzaileak

Oronotz-Mugaire 592044

Garraioak

Bidasotarra 631150

Baztanesa 580129

Leitzarani 515018

Aberiak:

Iberduero 450335/450336



Belateko tunela bi urteren buruan bukatuko dela agindu dute Diputazioetik. Izan ere, Almandoz aldetik egingen den zuloa eta Ultzama aldetik abiatua dena 1995eko abuztuan elkartuko direla uste baita, lurpean hiru kilometroko bidea zulatu ondotik. Argazkian Ultzama aldeko sarrera ikusten da, Gurutzeko kurbatik hurbil dagoena.

Iepa irakurle:

Eskuetan duzun hau, gure irudimenak eman duen **TTPI-TTAPA** berria da; zure gustokoa izatea espero dugu, irakurle, eta atsegin ez dituzunak edo idea berriak ekarri nahi izanez gero, bada-kizu non gauden. Bitartean eskerrik asko eta segi irakurle fin!

ttipi-ttapa

Urtearen balantzea baserri munduan

JOSEBA IGARABIDE

Nekazaritzaren egoera kaxkarra bada ere, badaude hortatik bizitzea erabaki duten gazterik, eta espezializatuz, aintzineran segitzen dute. Ez da txantxetako apostua.

Behi esnea egoera onean dago prezio aldetik. Bertze gauza da kuotaren kontua eta ordainketaren puntualtasuna.

Aretzeak 1993an prezio ona egin du, baina bertze 600 pezetatik gora, eta 700 pezetara ere ailegatu da.

Bildotsak eguberrietan prezio ona egin badu ere, urteroko kontua baita, gerotxigoberriz ere merketuko dela espero da.

Zerria lur jota egon da eta gainera prezio aldaketa haundiak izaten ditu. Dena dela da-

torren urterako egoera hobea espero da, jendeak zerramak kendu dituelako eta ondorioz zerrikume eskasia egon daitekelako.

Industrian ez da aldakuntza haundirik izan eta zerbitzu arloan, turismoaren indartu nahia izanen litzateke aipagarriena, Bertizko Turismo Partzuergoa eta turistendako etxeen ugaltzea.

Zati honek
3.000 Pta.

balio du
3.000 : 5.700
errebista =
0,52 Pta. errebista
bakoitzeko

zumeldi

ALTZARIGILEA

▲ Edozein xokotarako muebleak diseinatu eta egiten ditut

▲ Zure diseinuaren arabera material ezberdinak aukera ditzakezu.

Deitu eta neurriak hartuko dizkizut

© 387017 • ETXALAR

LESAKAKO ZUBIA

N-121-A



ZUMELDI

ETXALARKO BENTA

ttipi-ttapa



631188

Bortz marka hobetu ziren Doneztebeko herri kirol jaialdian

Iñaki Perurenak eta Jose Bikondoak munduko errekorrak gainditu zituzten

Abenduaren 26an ospatu zen Doneztebeko frontoian Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatutako herri kirol errekor jaialdia.

Eguraldiak batere lagundu ez bazuen ere frontoia betea zegoen eta giroa hasieratik epeldu zen kirolariei animoak ematen.


Lehenbizi, Sunbilla eta Berako proba konbinatuko taldeak atera ziren eta hautsi beharreko marka, 17 minutu eta 7 segundurekin. Proba berdindua izan zen, baina azkenean berakoak nagusitu ziren 16 minutu eta 12 segundutan lana eginez. Sunbildarrak 16 minutu eta 33 segundu beharizan zuten. Beraz, biek hobetu zuten marka.

Kañamares anaiek arpanean, Eduardo Eugik lasto altxatzen, J. Antonio Loiartek ingudearekin, Juan Petrirenak orga jokoan eta zakulariek ez zuten markarik lortu. Zakua-ekin aritu ziren Ana Poza, Rosalia Lekunberri eta Ana Ibarak minutu bat eta 37 segundutan utzi zuten lehenbiziko aldiz erregratutako marka. M^a Loren Eugik 138 metro egin zituen 25 kiloko txingekin.

Mindegiak eta Nazabalek 4 kanaerdiko etzanda eta bi zutik 12 minutu eta 28 segundutan moztu behar zi-



Berako arpanlariek proba konbinatuko errekorra egiten lagundu zuten



Munduko bi marka hobetu ziren: Jose Bikondoa aizkoran aritu zen 10 metro eta 30 zentimetroko alturan eta Iñaki Perurenak 210 kiloko harri borobila altxatu zuen

tuzten errekorra egitekotan. Mindegiak aisa irabazi zuen apostua baina markatik urruti gelditu zen.

Jaialdiaren erdian Amaiur eta Lesakako sokatira taldeek erakustaldi polita eskeini zuten. Bi tiraldi egin zuten eta bietan Amaiur gelditu zen garaile, baina lesakarrak gogor saiatu ziren.

Bi munduko errekor


Jose Bikondoak 10,30 metroko luzera zuen enborra igo eta bertan moztu zuen munduko errekorra hautsiaraz eta marka berria ezarri. Federazioak marka hau Guinness liburuari sartzea proposatu du.

Plazara atera zen azkema Iñaki Perurena izan zen. 210 kiloko harri borobila altxatuaz munduko errekor berria egiteko asmoa zuen eta halaxe izan zen Perureniak zailtasun gehiegirik gabe harria berdiindu baitzuen harria lepo gainean.

ARGAZKI ERREPORTAIA:
JOXEMANUEL IRIGOIEN



Goitian, Amaiur eta Lesaka arteko sokatira norgehiagoka. Eskuinaldeko Juan Petirenak eta behitiko aldean erdian eta eskuinaldean dauden J. Antonio Loiarte eta Eduardo Eugik ez zuten marka hobetzerik lortu. Behitin ezker aldean dagoen M^a Loren Eugik berriz, 138 metrotan utzi zuen txinga eramateko errekorra.



Artarrila
ASTEAZKENA **5**

BERA

KABALGATA. 6etan
iltzateko Plazatik hasi
ta Asilotik pasatuz
tereroko ibilbidea.
terriko Plazan trikie-
endako goxokiak
anatuako dira.

DONEZTEBE

KABALGATA.
30etan hasi eta
tereroko ibilbidea.

ELIZONDO

KABALGATA. 7etatik
oiti urteroko ibilbi-
dea. Santiago karrika,
lendinueta... eta
kibera Plazan.

LEITZA

KABALGATA. 6etatik
urrera kalez kaleko
ibilbidea. Bukaera
Plazan.

LESKA

KABALGATA. 6etatik
antzinera urteroko
ibilbidea.

Artarrila
GANDEA **16**

LESKA

SAN ANTON.
lartxa erregulatua eta
endi bizikletaz San
Antonera.

Artarrila
STELEHENEA **17**

ELIZONDO

SAN ANTON.
2etan Plazan zozketa
residentziaren alde
ta ondotik bertso-
ak eta txistulariak.

ERREZETA



Erregetako roskoa

Osagaiak 4 laguntzat

- Irina kilo bat 300 gr. gurin.
- 350 gr. azukre. 4 arraultze.
- gatza pixko bat. 2 laranja eta limoien raiadura. ron kopa bat
- 300 gr. orantza (ogiden-dakoa).
- ur dezilitro bat. es-negaina edo krema.

Prestatzeko manera

Osagai guzak oratuz, bolkan edo sumendi gisako bat egi-

ten da osagai guztiakin. Guzia fermentatzeko, toki bero batean jartzen da ordu batez eta orduan, erroskoen forma ematen zaio eta beste hogeituz minutuz fermentatzen utzii. Behin altxatu denean, labean sartu 180 gradotan eta ordu erdi batez eduku. Egina dagoenean labetik ateri, erditik ireki eta tar-



KRISTINA
SAIZAR
Otxontxiki
etxea
• Areso •

tean esnegaina edo krema pastelera sartu. Berriz estalkia jarri eta honen gainetik gindak edo frutu konfitatuak paratu eta guzti honen gainetik glaze-azukrea bota.

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- Zerrikumea (20 kilokoa): 5.600 pza.
- Zerri gizona (95-100): 140 pza/kilo
- Zerramak: 80 pza./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- Aretze gizenak:
Idixkoak: Pza/kg. Kanal
- Extra.....610
- 1.koa.....590
- 2.koa.....560

- Urruxak:** Pza/Kg. Kanal
- Extra.....630
 - 1.koa.....600
 - 2.koa.....575
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.
- Aretze tikiak (15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruxak 22.000 eta idixkoak 35.000 Pza.
 - Mestizoak: urruxak 38.000 eta idixkoak 45.000 pza.
 - Behi zaharrak:
Behi nabar gizona: 410 Pza./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 460 Pza /Kg. Kanal.

DATU-ITURRIAK: EHNE,
KIWI BAZTAN, ZUBIRIA MINDEGIAK...



❖ FRUTONDOAK ❖

- Hiru urteko landare bakoitza
- Bertako sagarrondoak 930.
 - Udareondoak 930 pta.
 - Bertako aranondoak 1.050 pta.
 - Gereziondoak 1.050 pta.
 - Kiwiondoak 600 pta. (2 urtek.)
 - Feijoondoak 1.000 pta. (2 urt.)



❖ BARAZKIAK ❖

- Tipula zientoa 250 pta.
- Udaberriko aza 500 pta.
- Letxuga zientoa 400 pta.
- Eskarola zientoa 400 pta.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

LESKA:

- Asteazkeno, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzealde Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

JAKIN BEHARREKOA

Desenpleguagatik kobratzen dena Seguritate Sozialari kotizatutakoaren arabera da

Artikulu honetan desenpleguari buruzko kontzeptu orokorrak aipatzen dira. Beraz, kasu konkretu baten inguruan xehetasunen bat argitu nahi izanez gero, kontsultatu.

Bertze norbaiten konturagutien lan enplegua bukatzen zaigunean, langile guztiak dugu desenplegua kobratzeko eskubidea. Berdin dio kontratua siderurgia, komertzioa edo nekazaritzakoa izatea.

Desenplegua kobratzeko baldintzak

Desenplegua kobratzeko, bertze batzuren artean, baldintza hauetako bat bete behar da: lan-kontratua bukatzea, heriotza, nagusiaren jubilazioa edo balioezintasuna, bidezko kaleratzea edo ez-bidezkoa, enplegu erregulazioa edo krisi-espedientea, atzerrira itzultzea eta gisako arrazoiak...

Desenplegu laguntzen iraupena, bertzalde, lan kontratuak izan duen iraupena-

ren arabera da. Desenplegu laguntzen kopurua Seguritate Sozialari kotizatutakoaren arabera da, eta bakarrik azkeneko 180 egunetan kotizatu duguna kontutan hartuko zaigu. Desenpleguaren lehenbiziko 6 hilabetetan, azkeneko 180 egun hoietan banaz bertze kotizatu dugunaren %70a kobratuko dugu, eta desenpleguaren seigarren hilabetetik aintzineria, banaz bertze kotizazio horren %60a.

Garrantzitsua da jakitea des-

Lanaldiaren iraupena	Desenpleguaren iraupena
360 eta 539 egun artekoa	120 egun
540 eta 719 egun artekoa	180 egun
720 eta 899 egun artekoa	240 egun
900 eta 1079 artekoa	300 egun
1080 eta 1259 artekoa	360 egun
1260 eta 1439 artekoa	420 egun
1440 eta 1619 artekoa	480 egun
1620 eta 1799 artekoa	540 egun
1800 eta 1979 artekoa	600 egun
1980 eta 2159 artekoa	660 egun
2160 egun baino gehiagokoa	720 egun

Seguritate Sozialari azken 180 egunetan kotizatutakoaren arabera kobratuko dugu

enplegu-laguntzak badi-tuela gehieneko topeak. Errate baterako seme-alabarik gabeko langile batek gehienez 116.104 Pta. kobratzen ahal ditu; seme-alaba bakarra duen langileak 133.178 Pta., eta bi edo gehiago dituen langileak 150.253 Pta. Aipatu azkenik, kontratua bukatu zaigunetik 15 egun ditugula paroa eskatzeko; gure kasuan Doneztebeko INEMen.

Desenplegu laguntza honetaz aparte badaude laguntza osagarriak edo 'konplementaria' deitzen direnak. Hauetaz, hurrengoan hitzeginen dugu.

PATXI LASA

(GRADUATU SOZIALA)
Erredakzioan itzulia

AGENDA EGUNEZ EGUN

KULTUR EGUNAK

ITUREN

1 Urtarrilaren 5etik 8ra

Ikus xehetasunak 17 orrialdean.

ARGAZKI ERAKUSKETA

ELIZONDO

1 Urtarrilaren 10etik otsailaren 4era

*Amerikako Argazkiak Kultur Etxean.

Z I N E KARTELDEGIA

DONEZTEBE

1 Urtarrilak 6.

Juego de Patriotas

1 Uztailak 8-9.

Mujer blanca soltera busca

1 Uztailak 15-16.

Sommersby

LEITZA

1 Urtarrilak 9.

Parque Jurásico

1 Urtarrilak 16 *Acción mutante*

1 Urtarrilak 16. *La historia Interminable 2*

GUARDIAKO BOTIKAK

1 Urtarrilaren 3tik 9ra Lesaka, Sunbilla eta (F. Lezaun) Elizondon.

1 Urtarrilaren 10etik 16ra Bera, Ituren eta (J. Iturralde) Elizondon.

1 Urtarrilaren 17tik 23ra Arantzeta, NARBARTE, Iruña eta Urdazubi.

ZURE OSASUNA ETA EDERTASUNAREN ZERBITZURA

Osasun fisikoa eta sikikoa tratamendu naturalekin


...

Bizkarrezurreko arazoak

...

Zelulitisa eta loditasunaren kontrako tratamendua

...



Jean Paul Bouchet
Doktorea

☎ 45 07 08 • DONAMARIAKO BENTA



ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU (9) 48 - 63 11 88 ora

ETXEBIZITZAK

ORONoz MUGAIRI. Bajera bat alkilatzeke lehengo CAMP-ean. 60 m², kaja fuerte eta eskapara-tearekin. Espeziala pelukeria, seguro agentzia edo horrelakoentzat. ☎ 451518.

ELGORRIAGA. Etxe berria (pisua eta atikoa) salgai. Prezio onean. ☎ (943) 213859.

BERA. Pisua alokatu nahi nuke Altxate inguruan. ☎ (943) 626769 (Carlos).

LESAKA. Pisua salgai Bittiriako plazan (Gurutze etxeko lehen pisua). ☎ 627506 (Gregoria).

LESAKA. 82 m²ko bajera salgai, Laminacione-serako bidean. ☎ 637872.

BERA. Legia karrikan 105 m²ko pisua salgai. ☎ 631135.

LESAKA. Bittirian 77 m²ko bajera salgai. ☎ 637404.

LESAKA. Bittirian 130 m²ko bajera alokatzen dut. ☎ 637404.

IBILGAILUAK

Land Roverra NA-A matrikuladuna salgai. Motor berria. ☎ 615040.

Gas Gas motoa, konpetiziorako modelokoa salgai. Prezioaz solastuko dugu ☎ 637432 (Xixo).

Vespa 75 cc.ko motoa salgai. Hiru urtekoa, 4.000 km. 100.000 pzt. ☎ (943) 612733. (Irun).

Alfa Romeo 33 1.5. salgai. Karrozeria berria eta egoera onean. ☎ (943) 612733.

Lada Samara autoa salgai. NA-Z Merkea. ☎ 634137. Gaeuz.

Opel Kadett GSI-16V salgai. Haize egokitua; ABS, leiho elektrikoak eta itxiera zentralizatuaz hornitua. NA-X. Kilometro guti ibilia eta egoera ezin hobean dagoena. ☎ 631157.

DENETARIK

Fagor hozgailua salgai. Bi ate etalau izarrekoa. Oso egoera eta prezio onean. ☎ 637787.

Sukalde kalefaktorea salgai, Hergon markakoa. Bi erradiadore eta bonbarekin. ☎ 453396 (eguerditan).

Galdaradun egurrezko sukalde baten bila gabiltza. Duzun horrekin zer egin ez dakizula bazabiltza, dei ☎ 450014ra.

Mega-Drivea joku batekin salgai. Arras gutti erabilia eta gainera merke. ☎ 634040.

Zure zaharrak (soliboak, bigak, pilareak, atepak) salgai. ☎ 604624.

Argazki kamara salgai. Praktika BC1 markakoa, bi objetibo eta 70-210 zoomarekin. Prezio onean. Kamararen poltsa oparituko nuke. ☎ 580311 eta 580121 (Maria).

Goizuetako Eskolako 8. mailakoek zozketatutako saskia, 1816 zenbakia ireki egokitu zaio.

LANA

Etxe batean lan eginen nuke egunero. ☎ 451681.

AGURRAI

Elizondoko Maide So-brinori: Zorionak zue urtebetetze egurean (abenduak 31). Orairarte bezain jator eta alai zegi. Txanpain botil baekin espero zaitugu. Zure kuadrilla.

Zigako Fernando Jiberari urte berri on batopa dizut. Urte zahar ganean txanpain botilik gab: ez etorri. Lagun bat.

Urdazubiko Gaineko-etxeko aita semeencako zorionak (urtarrilaren 12 eta 30ean) bere familiarren partez.

Gazteluko Idoia Mitxori: Zorionak zure urtebetetzean. Aizpa eta Gabiñe.

Elizondoko Maite Goñiri: Zure zorionak dirala eta, afari batera gonbitatuko gaituzu, ezta? Zuk dakizun batzuren partez.

Sunbillako Xilbioentzat: oso neska xarmangaria, Pok, Pok, Pok, Potik eta Teacher prait. Zoriorak zure 17. urtebetetzean. Pottottinak eta Kikirrut.

AZIENDAK

Hiru zakurkume erregalatu nitzuke Leitza. ☎ 510268 (Eneko Astibia).

Ihiziko zakur bat hatze-man dugu. Bizkar gaina beltza eta gainerakoa xuri-gorria. Badu kate bat. Zurea bada deitu Urdazubiko ☎ 599122ra.

Ardi zakurkumeak salgai. ☎ 604624.

Ardi zakurkumeak oparitzen dira. ☎ 630766 (Ramon).



BULEGORAKO MOBLEAK ETA MAKINAK

Soroxarta Pabeloiak 3-A, Anaka Auzoa
Tfnoa: 943 - 61 02 22 - 61 44 34
Fax: 943 - 61 44 34
20300 IRUN

- Moble ekonomikoenetatik hasita 'standing' altuenekoak bitarte
- Fotokopiagailuak, erregistratzaileak, telefax eta bulegoko edozein makina.
- Gure eskeintza **sofa eta etxebizitzarako konplementoekin** zabaltzen dugu.
- Erakusketa zabala. Eskariak abudo serbitzen dira.
- Parkin pribatua daukagu.

Centro Comercial



**LUIS
MARIANO**
Irun

40 ESTABLEZIMENDU ZURE ZERBITZURA

13 arropa denda, kirol denda bat, optika bat,
2 oihal denda, lentzeria bat, zapata denda bat,
4 kafetegi, inprimategi azkar bat, kristaldegi bat,
2 banketxe, bulego materiala, argazki denda bat,
dekorazio denda bat, supermerkatu bat,
aseguro etxe bat, ileapaindegi mixto bat, drogeria bat,
bidai agentzia bat, PVCKo nahiz zurezko leiho eta ateak,
hizkuntz akademia bat, moketak eta pinturak, etxe saltzaile bat...

*Denetarik
gauzarik hoberenak.
Irun erdi-erdian.
Parkina eta guzi.*

Zatoz zure oparia hartzera



175.000 pta.ko
diru sarrerarekin



225.000 pta.ko
diru sarrerarekin



250.000 pta.ko
diru sarrerarekin

Pasa zaitetz gure
bulegoetatik

- BERA •
- DONEZTEBE •
- LEITZA •
- LESAKA •



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA




CRISTALERIA VELATE



Itxiduren Delegazio Ofiziala Nafarroarako

Bulego • Terraza • Pistzina eta Jatetxeetarako egokia



Espaisol-ek eskaintzen dituen Itxidura Plegakorrek, klima eta beharren arabera erabilgarri izanzen dituzun leku berriak sortzeaz gain, dekoratiboki ere atseginak dira.

DELEGAZIOAK: Pedro Axular, 1 ☎ 58 08 25 **ELIZONDO** / Merkatarien karrika, 5 ☎ 45 09 91 **DONEZTEBE** / Av. Villava, 12 ☎ 13 20 21 **IRUÑEA**



ALMACENES ETXANIZ

Lesakako Iturria anaiak



Azulejoetan hasi eta azkeneko detaileraino, bainugela osatzeko behar duzun guziaz:

- Komunak,
- Mobleak,
- Iturriak,
- Manparak,
- Osagarriak...

BILTEGIA

Juan Arana, 3

ERAKUSTOKIA

Juan Arana, 1

Tfnoa eta faxa: (943) 611767